

AURRERAPENAREN HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK

KODEA:

- Atzealde grisez onetsitako helburuak eta irizpideak.
- Atzealderik gabe, ezetsiak.
- Etzanez, Batzordearen oharrak.

INGURUNE FISIKOA EDO NATURALA

Helburuak

- Nekazaritzako lurzoruak babestea
- Baso-lurzoruen okupazioa berronkatzea (pinuak eta eukaliptoak hedatuegi daude)
- Ibai-sarearen babesa eta berreskurapena hobetzea
- Inguru sentikorretan erabilerak mugatzea

Proposamenak

Antolamendu mailak:

- lurraldea bere ezaugarrien eta gaitasunen arabera banatzea
- lurraldea babestea erabilera baimenduak esleituz

Gainjarritako baldintzatzaileak:

- inguru sentikorrek mugatu (urez estaltzeko aukerak, higadura...)
- jarduera jakin batzuk burutzeko modua mugatzea

Ingurumenaren Ordenantza idatzi.

LANDA GUNEAK

Helburuak

- Auzoen bereizkuntzarik gabeko hazkundera saihestea

Proposamenak

- Ez da landa gunerik proposatu

ETXEBIZITZA

Helburuak

- Hiri eredu orekatua lortzea
- Bizileku eskaria asetzea

*Egiazko etxebizitza premiak kontuan hartuta.
Espekulazioko eta familia bakarreko etxebizitza eskaerak kontuan hartu barik.*

Proposamenak

1. aukera edo "Jarduketarik eza":

Ez da gune berririk proposatu

1. kuantifikazioa

- Udalaren erabakia
- 195 etxebizitza

*Bizileku garapen berriak behar badira, lurzorurik artifizialduenak edo nekazaritza
baliorik txikienekoak hautatu behar dira.*

- A aukera:
 - 12 -1 HG (Conautaetaren hegoaldera, igerilekua)
 - 13 -1 HG (Zubitalderen eta ingurabidearen arteko txaletak)

2. kuantifikazioa

- LPP eguneratu barik (Eusko Jaurlaritza)
- 264-614 etxebizitza
- B aukera:
 - 12 - 2 HG (Basagurenalderen iparraldera)
 - 13 -1 HG (Zubitalderen eta ingurabidearen arteko txaletak)
- C aukera:
 - 12 - 3 HG (Basagurenalderen iparraldetik Conautaraino)
 - 13 -1 HG (Zubitalderen eta ingurabidearen arteko txaletak)
 - 14 - 1 HG (Conauta)

3. kuantifikazioa

- LPP eguneratuta (biztanleriaren 12 urteko bilakaera)
- 589-939 etxebizitza
- D aukera:
 - 12 - 3 HG (Basagurenalderen iparraldetik Conautaraino)
 - 13 -1 HG (Zubitalderen eta ingurabidearen arteko txaletak)
 - 14 - 2 HG (Conauta eta hilerria)
 - 15 -1 HG (Conautaren hegoaldera, igerilekua eta Gorbea k.)

JARDUERA EKONOMIKOAK

Helburuak

- Premiak asetzeko lurzorua ematea

Proposamenak

- Sierra eta Conauta lekuz aldatzea
 1. aukera: Sasine 8.2 eremuan birkokatzea
 2. aukera: Sasine 8.2 eremua zabaltzea han birkokatzekeo

EKIPAMENDUAK ETA BERDEGUNEAK

Helburuak

- Hazkunde gaitasun handiena duten ekipamenduak handitzea eta hobetzea

Proposamenak

- Ekipamenduak biztanleriaren hazkundearen arabera osatzea

1. Errebale 2 (batzoki zaharra): Kontsultategia beheko solairuan/ Erabilera zehaztu beharreko solairu bi
2. Errebale 11 (apaiz etxea): eskola handitzea
3. Skate pista Sarrikolea industrialdean *(kokapena erabaki barik)*
4. Hilerria: Goikoelexaldera mugitzea

1. Aretxabalgane erreko parkea
 - natura izaerakoa: zaintzea eta ingurunea hobetzea
 - 1. aukera: udalak lurzorua desjabetzea
 - 2. aukera: lurzorua lortzea eta etxebizitza berriak beste gune batzuetan eraikitzea
2. 12 HG bizitegi-areako parkea (Basagurenalde)
 - Aretxabalgane erreko parkearen jarraipena

MUGIKORTASUNA

Helburuak

- Mugikortasun jasagarria bultzatzea

Proposamenak

- Trafikoa hirigunetik ateratzea
- Lezamarekiko trenbidezko lotura
- Goikoelexalden irisgarritasuna hobetzea eta trafikoa lasaitzea
- Bestelako bideria: oinezkoentzat eta bizikletentzat

1. Ertzeko bidea 12HGn (Iparra)
 - Igarotzeko trafikoa Lezamarako errepidetik Morgarako errepideraino desbideratzen du

2. Trenbidea

Lurzorua gordetzea etorkizunean Larrabetzuko gunea eta Lezama lotzeko

3. Biribilgunea Goikoelexalden
Goikoelexalde gunerako sarbidea hobetzea
Gunea zeharkatzen duen trafikoa lasaitzea

4. Oinezkoen ibilbide sarea
Aretxabalgane ibaiaren ardatza
Ibilgailuak eta oinezkoak Errebalen (futbol zelaitik plazaraino), Lehendakari Agirren (frontoiaren eta eskolaren aurrean) eta Andra Marin (elizatik haurreskolaraino) bateragarri bihurtzea.

Eta Eleixosterekiko kale paraleloan ibaiaren ondoan.

5. Txorierriko bidegorria

1. aukera: Lezamarako errepidea, dagoen galtzada egokituz eta seinaleak jarritz
2. aukera: Berresonagako bidea, bateragarri bihurtzeko seinaleak jarritz

BESTELAKOAK

Helburuak

- Hornikuntza eta saneamendua hobetzea
- Argizatze publikoko sistemak irizpide jasagarriekin diseinatzea
- Interes historiko, artistiko eta kulturaleko elementuak babestea

Proposamenak

Instalazioak

- Dauden sareak pixkanaka hobetzea
- Dauden aireko lineak lurperatzea
- Obrak Aretxabalgane errekan uholdeak saihesteko

Intereseko guneen eta baliabideen katalogo irekia

- Zaindu beharreko inguru naturalak: baso autoktonoak
- Paisaia intereseko guneak: Landa guneak eta gailurrak
- Kultura, zientzia eta didaktika ondarea
 - Babespeko edo intereseko eraikinak
 - Interes geologikoko guneak
 - Bide historikoak
- Intereseko natura baliabideak
 - Ur-harpenak eta iturburuak
 - Nekazaritzako lurzorua